

GONZAGA-KO LUIS ZORI-AUNDIKOARI

BERE ERIOTZEKO IRU-GARREN EUN-ALDIAN.



Erit sepulchrum ejus gloriosum. (Isai, XI, 10).

¿Zer da, ezkillak dinbilin-danba mundu guztitik
 Orren gogorki soñu ozena jotzen aitzeko?
 Gelditu bage, bizi dedilla, zeri diote?
 Zer gertatzen da igande-egun au onla jaitzeko?
 Zeri dijoaz su-zirrizta¹ oik tipi-ta-tapa
 Belarri danak ia gortuan odei aldera?
 Erregeren bat jaio da ala apaindutzeko
 Eleiz, kaleak onen ederki era berera?
 Lurraren gaña dardara zuen Alejandro-ren
 Ezur austuak arkitu doia ala lurpean?...
 Zertara doia Erroma-aldera jende guztia
 Ezpada ageri aundizko gauzik ezer ere an?
 Zinta urdin-dun, mutill-gaztea, esan zadazu,
 Zure arontza zuaz noski ta esan ¿zer dute
 Jendea oiek orlako biška ara juateko,
 Nik ikus ezin dedan gauzen bat ote aldute?
 Jaio da?... dator?... etorri... al da? buru-zairen bat,
 Erregeren bat, enperadore, mundu-burua,
 Milla gerratan irabazi ta bazter danetan
 Dakarrelarik arri-piñezko buru-korua?
 Azaldu dake mundu berrien billatzallerik?
 Salomon baño dirutsuago dedikenen bat,

(1) Cohete.

Jakindurizko argi-jasetan, eragiñ eta
 Goibeldurika daukazkiena eguzki zeinbat?¹
 Zerengatika dago alaia zeru urdiña?
 Zerengatika eguzki jauna pozez pozkiro?
 Zerengatika dabiltz izarrak gir-gir egiñaz:
 Dijoa illargi dagon-irruña orren eztiro?
 Mutill-gaztea, esan zadazu, esan zadazu,
 Iduki bage zelantz onetan, arriturika:
 Mundu guztitik dakust jendia nola datorren
 Zuri ta beltzak, garrantz ta aranak... nondiknaitika.
 Arritutzen da, jende aundia datorrelako?
 Bada oraindik ez du ikusi, jauna, guztia,
 ¡Zer esango du, ikusten bada ospatzen dana
 Mundu-buruen lekuan, dala, mutill-gaztia!
 Mutill-gaztia, egia bada ere jaiotzaz
 Diruduntsua, errege-tarra, aundi-jatorra;
 Danak utzi ta Jesus-tarcho bat egiñ izanik
 Santu ill zana, gizon aundia, orra, zein, orra.
 Mutill gaztea, aberats zana, biar egiña,
 Jesus-tarretan umilltasuna geiagotzeko;
 Gazteriz illa, berria zela, denborarika
 Mundua... rentzat artu bagerik ezertarako
 Choko-chokoan, santucho ill zan, uste bagerik,
 Santu nola ez munduarentzat bizi ezpazen,
 Orregatikan urte guchian, laster aundia
 Zeru-bidean azkarra onek, chit egin zuen.
 Arrazoi zuen, etzala agiri, ezercho ere,
 Arrazoi zuen, nori gogora biar zitzaigun
 Jesus-tar chiki baten obira etorritzea
 Munduko jende aundi artetik onenbest lagun?
 Bedeinkatua izan dedilla, Jaungoiko Jauna
 Gauza chikiak aundi egiten: bedeinkatua,
 Bere maitea ospetsuturik egin du eta
 Obi isilla izan dedilla gloriatua.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

(1) Amén de convenir para la consonancia, juzgo que esta es la forma regular y tal vez primitiva del *zenbat*.